

## Ikasturte berri eta berezia

Haur eta Lehen Hezkuntzako zein DBH 1. eta 2. mailako ikasleak ikasgeletara bueltatu dira asteon; protokoloak ezarri dituzte ikastetxeek / 8-9

## Badator Euskaraldia

Aurtengo edizioan herritarrek eta mota guztietako entitateek egin dezakete ariketa sozial hori / 5

Koronabirusaren datuak herrian: 80 positibo atzeman dituzte iraileko lehen egunetan / 2

Igandean Kontxan "edozer" gerta daitekeela uste du Aiora Belartietarraunlariak / 11



AEKn, IRAKASLE BATEK BIK BESTE BALIO DU.

Irakasten daki eta ikas dezazun nahi du.

**aek**

euskara praktikoa

eman izena!

## Muntteri AEK euskaltegia

EUSKARA-IKASTAROAK

### MATRIKULAZIOA ZABALIK

- Maila guztiak: A1, A2, B1, B2, C1 eta C2
- Aurrez aurreko eskolak.
- Autoikaskuntza.
- "On-line" aukera.

# COVID-19 kasu gehiago atzeman dituzte herrian

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren datuen arabera, iraileko aurreneko bederatzia egunetan 80 kutsatze erregistratu dira Lasarte-Orian. Osasun Zentroko langileak PCR probak egiten ari dira positibo eman duten herritarren gertukoei, aurrez hitzordua emanda

## Txintxarri

Abuztu amaieran Lasarte-Orian kasuen gorakada eman zenean aurreikusitako zetozen egun eta asteetan ugaritu egin zitezkeela positibo horiek. Momentuz, betetzen ari dira prebisioak, iraileko lehen bederatzia egunetan 80 kutsatze jaso baititu Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak egunero argitaratzen dituen txosten epidemiologikoetan.

Aldizkari honen edizioa itxi aurretik, irailaren 9ko datuak kontsultatu ahal izan ditu TXINTXARRI-k. Horien arabera, asteazkenean hamabi positibo erregistratu ziren herrian. Aurreko egunetakoei gehituta, 80 bederatzia egunetan. Abuztuko datuekin alderatuz gero, kasuak dezentze hazi dira, aurreko hilabetean hogeitaz atzeman baitzituzten tarte berean.

Egun hauetan Loidi-Barren pilotalekutik pasatzen diren herritarrek Osasun Zentroko langileak ikusiko dituzte PCR probak egiten, 13:00etatik 15:00etara. Ezin du edonork eskaera egin. Proba horiek egitera joaten ari diren lasarte-oriatarrek dira honezkeroko positibo eman dutenen gertukoak. Erizain arakatzailleak telefonoz jartzen ari dira



Herritar batzuk Loidi-Barren pilotalekura sartzan, PCR probak egitera. TXINTXARRI

harremanetan beraiekin, eta hitzorduak zehazten. Mercero gunean aritu dira duela gutxira arte, baina espazio hori libre utzi eta tokiz aldatzea adostu dute Osasun Zentroak eta udalak. Proba gehiago egiten ari dira egunez egun.

## Kasuak EAEn eta eskualdean

Irailaren 9an 635 positibo erregistratu ditu Osasun Sailak EAEko hiru lurraldeetan: 342 Bizkaian, 174 Gipuzkoan eta 97 Araban. Egundik horretan PCRA egin eta positibo eman duten

beste 22 pertsona erkidegotik kanpo bizi dira. 233 paziente daude ospitaleetan ingresatuta, horietatik 55 ZIU Zainketa Intentsiboko Unitateetan. R0 edo birsortze-tasa 1,04koa izan da egun horretan.

Beterri-Buruntza eskualdeko udalerrietan ere ari dira kasuak atzematen. Irailaren 9ko datuei erreparatuta, 22 positibo erregistratu dituzte guztira: hamabi Lasarte-Orian, sei Hernanin, hiru Andoainen eta bat Usurbilen. Astigarraga eta Urnietan, bakar bat ere ez.

## KZgunearen hitzaldietan parte hartzeko aukera

YouTubeko kanalaren bitartez ikastaro eta solasaldiak eskainiko ditu datozen asteetan, 18:00etatik 18:30era

## Txintxarri

Udako oporraldia amaituta, KZ Guneak prest dauka ikastaro berriak. Zuzeneko hitzaldiekin jarraitzeko apustua egin dute, eta, horretarako, bere youtubeko kanala erabiliko dute. Asteaz bi

saio egingo dituzte, ordu erdi ingurukoak, eta IKTren (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia) inguruan arituko dira.

Euskaraz eta gaztelaniaz izango dira zuzeneko saio horiek, eta

edonork jarraitu ahal izango ditu prestatu dituzten zuzeneko saioak. Interesa duenak, interneterako konexioa besterik ez du behar, eta, antolatzaileek jakinarazi dutenez, aurrez izena ematea ez da beharrezkoa izango.

Hau da datozen asteetarako eskaintza: Datorren asteartean (euskaraz) eta asteazkenean (gaztelaniaz) *Ludifikazioa, dena da hobea jolasten* hitzaldia eskainiko dute. Bi saioak 18:00etan hasiko dira eta 18:30ean amaitu.

## Bigarren eskuko bizikleten azoka irailaren 25ean Okendon

Europako Mugikortasun Jasangarriaren Asteko ekintza da; antolatzaileek osasun-neurri bereziak hartuko dituzte

## Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak eta Artelatzen enpresak bigarren eskuko bizikleten azoka antolatu dute irailaren 25erako, ostiralez, Okendo plazan. Arratsaldez irekiko dute, 16:30etik 20:00etara. Europako Mugikortasun Jasangarriaren Astearen egitarauko ekintza bat izango da hori, pandemia dela-eta desberdina izango dena ezinbestean: antolatzaileek iragarri dute osasun-neurri bereziak hartuko dituztela.

Azoka-gunearen aforoa "uneoro" zainduko dute: bisita-txandak emango dizkiete herritarrei, 15:00etatik hasita. Bestalde, nahitaezkoa izango da maskara jantzita eramatea. Beste neurri batzuk ere hartuko dituzte: salgai jarriko diren bizikletak eta patineteak desinfektatu egingo dituzte salgai jarri

aurretik, izen-emate orriak posta elektronikoki bidaliko dituzte, eta abar.

## Bizikletak eta patineteak

Antolatzaileek zehaztu dutenez, aurtengo azokan bizikletak eta patineteak hartuko dituzte soilik. Norberak saldu nahi duena eraman behar du azokara eta antolatzaile taldeari utzi. Gordailu-zerbitzua 15:00etatik 16:30era irekiko dute. Prezioek ezingo dute 500 eurokoak baino garestiagoak izan.

Aurrez hitzordua hartu behar dute parte hartu nahi dutenek, 943 67 02 49 telefono zenbakira deituta. "Herritarrek aukera paregabea dute bizikleta eta patineteak prezio ezin hobean erosteko", azpimarratu dute antolatzaileek. Saltzen ez diren ibilgailuak jabeek itzuliko zaizkie azoka ixterakoan.

## HAPo planari buruzko bigarren saio irekia, irailaren 15ean

Hiri Antolamendurako Plan Orokor berria egiteko herritarren parte-hartze programa martxan jarri zuen Lasarte-Oriako Udalak iazko ikasturte amaieran.

Besteak beste, saio irekiak antolatzen ari dira hilabeteotan, HAPo plan hori zertan den jakin dezaten lasarte-oriatarrek. Hurrengo irailaren 15ean izango da, asteartearrekin, Manuel

Lekuona kultur etxean, arratsaldeko seietan hasita.

HAPo planari urriaren 31ra arte jarri ahalgo zaizkio alegazioak. Iradokizun, proposamen eta bestelakoak Udal Erregistrora eramanda edo telematikoki aurkeztu behar dituzte lasarte-oriatarrek, norberaren identifikazio pertsonala aurkeztuta. Planaren dokumentuak Lasarte-Oriako Udalaren web orrialdean kontsulta daitezke, [www.lasarte-oria.eus](http://www.lasarte-oria.eus) helbidean.

## Marisa Zubiri udal zinegotzi ohia zendu da

Marisa Zubiri Bustillo udal zinegotzi ohia irail hasieran hil zen, eritasun luze baten ondorioz. Urte dezentez lan egin zuen udal korporazioan, 1999tik 2015era hain justu, hamasei urtez. PSE-EE taldeko zinegotzi izan zen, baina azken legealdian, 2011-2015 urte bitartekoetan, adskribatu gabea izatera pasatzea erabaki zuen.



Marisa Zubiri, 2011n. TXINTXARRI



Bi herritar kaletik, erosketa-poltsak eskuan daramatzatela. TXINTXARRI

# Aterpearen Udazkeneko Festa, martxan

Parte hartzen ari diren komertzioetan erosketak irailaren 19a baino lehenago eginez gero, herritarrek erosketa-bonuak irabaz ditzakete; zozketan sartuko dira. Lasarte-Oriako Udalaren bonuen kanpainan parte hartzeko azken eguna irailaren 15a da, asteartea

## Txintxarri

Herriko establezimenduetan erostea sustatzeko asmoz, irailaren 7tik martxan dago Aterpea elkarteak eta udalak elkarlanean antolatutako Udazkeneko Festa. Irailaren 19ra arte, larunbatez, makina bat komertzioetan erosketak egin ditzakete herritarrek: erosketa-bonuak irabazteko zozketan sartuko dira. 3.500 euro banatuko ditu bezeroen artean Aterpeak. 500 euroko bi bonu eta 250 euroko beste hamar zozkatuko ditu elkarteak irailaren 23an, asteazkenarekin. Parte hartzeko baldintza izango da

Aterpeko establezimenduetan erosketak egitea. Izen-emate orriak bertan jasoko dituzte bezeroek.

Kanpainaren bigarren zatian Sasota-Zumaburu eta Landaberri-Garaikoetxea ikastetxeetako 600 bat ikasleren marrazkiek apainduko dituzte dendak. Haur bakoitzak bere marrazkia bilatu ahal du parte hartzen ari diren komertzioetan, eta, topatuz gero, saritxo bat jasoko du.

## Bonuen kanpaina

Lasarte-Oriako merkataritzarako, ostalaritzarako eta zerbitzu pertsonaletarako bonuen

kanpaina bat abiatuko duela iragarri du udalak; 125.000 euro bideratuko ditu egitaspora.

Parte hartu nahi dutenek irailaren 15a baino lehen egin beharko dute eskaera, asteartez. Aurkeztu beharreko dokumentuak Mirentxuko COVID-19 bulegora eraman ditzakete 943 37 61 79 telefonoan aurrez hitzordua hartuta, edo telematikoki bestela, [www.lasarte-oria.eus](http://www.lasarte-oria.eus) web orrialdean. Kanpainan parte hartzen dutenen artean banatuko dira bonuak, bi motakoak: 20 eurokoak (10+10) merkatarientzat eta 10ekoak (5+5) ostalarientzat.



NEURE KABUZ

NEREA SEGURA

## Hamarretakoa

Musukoak, gel hidroalkoholikoa, mukizapiak eta libururen baten bat motxilan sartuta daude, dena prest haurrak eskolara bidaltzeko —bazen garaia!—; baina guraSOS!, Covid-kit-az aparte ez ahaztu hamarretakoa. Ezin dugu alde batera utzi maskara beharrezkoa dela kutsadurari aurrea hartzeko, baina ezta umearen osasuna eguneroko elikaduraren mende dagoela ere. Beraz, jatordu bakoitza garrantzitsua da. Obesitatea, diabetesa edo kolesterola saihesteko egiten ez baduzu, behintzat egin ezazu, oro har, birusak saihesteko.

Immunitate-sistema sendo bat mantentzeko, ariketa egin behar dute eta atsedena hartu (pantailarik gabe). Era berean, jaten eta edaten dutena ondo aukeratu, zuk lagunduta. Adibide batzuk jarriko dizkizuet (moldagarriak dira, alergia-intolerantziak edo bizimodu alternatiboak kontutan hartuta). Astelehenean: esne-osoia, edari-begetala, natural-jogurta edo osagai hauekin egindako irabiakia; baina adi, pote txikiko super-edari azukredunak EZ du balio. Asteartean: sasoiko fruitu osoak edo potetxo batean zatikatuta eraman daitezke. Asteazkenean: etxean egindako bizkotxoa, zergatik ez, azukre kopurua murrizten badiozue. Ostegunean: fruitu lehorrak edo ogitxo integralak. Eta ostiralean: ogitartekoa, baina erne jartzen diozunarekin; gazta, tortilla, banana fruitu lehorren krema igurtzita (azukrerik gabe), guakamole eta urdaiazpikoa (ez hestekirik), hegaluzea piperradarekin, aukera on batzuk dira. Eta jakin ondo badakizu zeintzuk ez diren eguneroko eraman behar. Izan ontsa.

## Brigidetan, mezak hasi dira

COVID-19ak behartuta mezen etenaldia egin eta gero, herritarrek Ama Brigitarren kaperan mezetara joaten hasi dira. Irailaren 8an, Consueloko Amaren egunean, egin zen lehen meza Felix Garitano kapilauak gidatuta.

Ohi bezala, mezak egunero egiten ari dira, 11:00etan hasita, irailaren 9an izan ezik. Arantzazuko Amaren eguna izanik 10:00etan egin zuten.



TXINTXARRI

**Ttakun**  
Kultur Elkartea

# Zozketa!

Ttakun Kultur Elkarteak bazkideen artean!

Haurrekin **ESKULANAK** egiteko gida + 3 CD  
(The Uski's + Labrit + Oinkari Dantza Taldea)

Parte hartu nahi baduzu, eman izena **IRAILAREN 27a** baino lehen:  
[harpidetza@ttakun.eus](mailto:harpidetza@ttakun.eus) helbidean 943 37 14 48 zenbakira deituta eta  
646. 82 44 66 (whatsapp)



Bazkideztza informazioa

**NOAOA**  
BIDAIAK

Hipodromo Etorbidea, 10 LASARTE-ORIA

**943 37 36 13**

Orduetgia: **09:30-13:30**

Aurretiko hitzordua beharrezkoa da

[info@noaoa.eus](mailto:info@noaoa.eus)



Udal euskaltegiak eta Muntteri AEK-k ikasturte berrirako eskaintzak prest dituzte; irailean egin behar da matrikula. TXINTXARRI

# Herriko euskaltegietan euskara ikasteko aukerak

Udal euskaltegian irailaren 23ra arte egin daitezke matrikula, eta Muntteri AEKn, berriz, hilaren 25era arte. Maila eta ordutegi guztietara egokitutako ikastaroen eskaintza zabala egin dute, aurren ere, Lasarte-Oriako euskaltegiak

## Txintxarri

Euskara ikasteko aukera zabala dago Lasarte-Orian. Udal euskaltegiak eta Muntteri AEK-ko zuzendariak, abiatzearen duten ikasturte berriaren berri eman dute, eta udaleko euskara batzordeko lehendakari Jon Antxordokirekin batera, herritarrei dei egin diete euskara ikastera edo hobetzera animatu daitezke.

Udal euskaltegiak zuzendari Jesus Mari Asurabarrenak gogorarazi du matrikulatzeko epea irailaren 23an amaituko dela, eta, epe horren barruan matrikulatzen diren ikasleek matrikula hamar zatitan ordaintzeko aukera izango dutela. Horrez gain, Gazte txartelaren erabiltzaileek %10eko hoberia izango dute eta beste udal zerbitzuetan bezala, hoberia (%25, %50 edo %75ekoa) edo salbuespena izateko eskubidea duten herritarrek, euskaltegiaren matrikulan ere izango dute.

Eskolak goizez, arratsaldez eta iluntzean izango dira eta maila guztiak eskainiko dituztela ere iragarri dute. Gainera, aurrez aurreko eskoletara joan ezin dutenentzat on-line bidezko autoikaskuntzako eskaintza ere badutela azpimarratu dute.

Matrikula egiteko euskaltegiara bertara joan behar da, edo 943 36 16 21 telefono zenbakira deitu

Muntteri AEK-ko Garazi Zinkunegi zuzendariak ere euren eskolako eskaintzaren berri eman du. Herrian matrikulatzeak abantaila handiak dituela, besteak beste, jendea ezagutzen, herriko harreman-sareetan txertatzen eta herrian egiten diren gauzetan parte hartzen laguntzen duelako.

## EUSKALTEGIETAN IZENA EMATEKO AUKERA IZANGO DA IRAILAREN 23RA ETA 25ERA ARTE

Euskaltegiak eskaintzari dagokionez, "ordutegi guztietan" eta maila guztiak eskaintzen dituztela gogorarazi du eta aurrez aurreko klaseetara joan ezin dutenentzat autoikaskuntzaren eskaintza ere badutela azpimarratu du. Muntterin matrikulatzeko epea irailaren 25ean amaituko da. Izena emateko euskaltegiara bertara gerturatu behar da, edo 607 625 233ra deitu.

## Ikastaroei zuzendutako beka

Jon Antxordoki Euskara Batzordeko buruak azaldu du euskaltegietan ikasten aritzen diren herritarrek matrikulaprezioaren %85 arteko beka jaso dezaketela udaletik. Beka horien inguruko zehaztasun eta baldintza guztiak etxebizitza guztietara banatu den diptikoko audela gogorarazi du, eta jakinarazi, eskaintza berri horri erantzuteko, 2020ko aurrekontua 60.000 eurokoa dela eta irizpide horiekin 2019-20 ikasturtean 146 beka eman berri dituztela.

## Jantzi tradizionalen urteroko ikastaroak ez du hutsik egingo

Ione Artolak gidatuko du aurren ere Ttakun Kultur Elkarteak antolatutako ikastaroa. Astean bi ordu izango dira

## Txintxarri

Ttakun Kultur Elkarteak eta Ione Artolak jostunak eman diote itxura aurtengo jantzi tradizionalen ikastaroari, eta zehaztu dituzte datak ere. Urriaren lehen izango da lehen saioa, osteguna, eta azaroa amaitu bitartean, asteartero eta ostegunero joan ahal izango da, arratsaldeko 15:30etik 17:30era Emakumeen Zentro Zibikoan.

COVID-19ak eragindako egoera dela-eta, aurtengo parte hartzaile kopurua mugatu egin dute antolatzaileek, eta izena emateko, kultura@ttakun.eus helbidera edo 943 37 48 14 telefonora deitu behar da.



Aurreko ikasturteko jantzi bat. TXINTXARRI



ERRAUSKETAREN AURKAKO MUGIMENDUA

## Giza kate mugikorra igandean

EAM Errausketaren Aurkako Mugimenduak Zubietako erraustegiaren aurka manifestatzerako deitu ditu Donostia eta inguruko udalerrietan bizi diren herritarrik igande honetan, irailak 13. 11:00etan aterako da giza katea Alderdi Ederetik, eta hondartzan ez da geratuko aurren. Osasun-neurriak bermatuko dituztela azpimarratu dute antolatzaileek.

## Hilotzen diska berria, irtetear

Hilotz taldeak datorren asteartean kaleratuko du *Aske* izeneko lana, irailaren 15ean, asteartez. Iraupen luze bikoaren diskoak izango da hori Mikel Yarza lasarte-oriatarren taldearentzat. Iraila hastearrekin batera, bigarren aurrerapen kantua kaleratu berri dute, aurrekoaren metal bertsio bat eginda, bideoklip artistiko eta guzti.



HILOTZ/BEGIPUNTUAN



Lasarte-Oriako 51 entitate erreferenteak aurkeztu dituzte asteon Lasarte-Oriako Udalak eta Ttakun KEK. Hasiak dira aurtengo Euskaraldia prestatzen. TXINTXARRI

### Iñigo Gonzalez Sarobe

Hizkuntza ohiturei beste astinaldi bat emango die Euskaraldiak aurtun. 2018an egin zuten aurrenekoz ariketa sozial hori herritarrek, norbanako gisa. Ezohiko urte honen amaieran etorriko da bigarrena, azaroaren 20tik abenduaren 4ra, berrikuntza nabarmen batekin: herritarrek ez ezik, mota guztietako entitateek –enpresek, komertzioek, elkarteek, hezkuntza eragileek, instituzio publikoek, eta abar– parte hartuko dute, *arigune* delako espazioak sortuz. Beste hitz batzuetan esanda, espazio horiek euskaraz aritzeko guneak izango dira, barnekoak zein kanpokoak.

Alor teknikoetan sakondu aurretik, merezi du azpimarratzea Lasarte-Oriako zerrendan 51 entitate daudela gaur-gaurkoz. "Entitate erreferente" gisa hartu dituzte horiek denak Udalak eta Ttakunek; badaramatzate hilabete batzuk lanketa egiten. Asteon aurkeztu dituzte parte-hartzaile horiek Manuel Lekuona Kultur Etxeko hitzaldi aretoan, ostegun arratsaldean, irailak 10, maskara jantzita eta elkarren arteko distantzia soziala mantenduta. Udaleko Euskara batzordeburu Jon Antxordoki, batzorde horretako teknikari Marifer Gorostiza eta Ttakun Kultur Elkarteak kudeatzaile Jokin Guridi arduratu dira Euskaraldiaren edizio honen nondik-norako eta zehetasunak azaltzeaz.

Aurrekariari buruz jardun da Antxordoki. "2016an egin genuen

# Norbanakotik kolektibora

Badator bigarren Euskaraldia: azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingo da. Berrikuntza nagusia da herritarrek ez ezik, mota guztietako entitateek ere parte hartuko dutela hizkuntza ohiturak astintzeko ariketa sozial horretan, 'arigune' delakoetan elkartuz

azkenekoz Euskararen Maratoia, orduan entzun genituen *Ahobizi* eta *Belarriprest* hitzak lehen aldiz. Badirudi atzo zela, baina pasa dira lau urte ordutik", gogoratu du. Euskaraldiaren ideia ere hortik dator. Maratoiaren 10. edizioa aurtun ospatzekoa zen, baina pandemiak eragindako egoera tarteko, urtebetez atzeratzea erabaki dute antolatzaileek.

### Entitateak ere bai

Euskaraldiak, ordea, aurrera darrai. Euskara ulertzen duten hiztunen arteko hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa soziala da; helduen aktibazioa du oinarri. Antxordokik zehaztu bezala, aurreneko edizioa 2018. urtean egin zen. Orduko horretan herritarrek parte hartu zuten, norbanako modura, lehen aipatutako bi rol horietako bat

hartuz: *Ahobizi*, euskaraz ulertzen duten guztiekin hizkuntza horretan solastuko direnak uneoro; edo *Belarriprest*, euskara ulertzen dutenak eta besteei euskaraz egin diezaioten eskatuko dutenak. Parte hartzaile mota horri dagokionez antza handia izango du 2020ko ariketak.

Aurtengo berrikuntza nagusia: mota guztietako entitateek ere parte hartu ahalko dute, *ariguneak* sortuz, barne zein kanpokoak. *Ahobizi* edo *Belarriprest* izango dira kideak. Barne-ariguneetan, Guridik azaldu duenez, entitateen baitan

**IRAILAREN 27RA ARTE IZENA EMAN AHALKO DUTE EUSKARALDIAN PARTE HARTU NAHI DUTEN ENTITATEEK**

ohiko dinamika duten eta kide guztiek gutxienez euskara ulertzen duten taldeak dira. Esate baterako, elkarte baten zuzendaritza taldea. Kanpo-ariguneak, berriz, osatuko dituzte herritarreko harreman-espazioetan dauden pertsonen, dendari zein tabernarien kasu.

Gorostizak jakinarazi du herri mailan lan hori egin dutela dagoeneko zenbait entitatek, eta beste zenbait orain hasiko direla. Entitate erreferenteak aurkeztuta, Lasarte-Oriako gainontzekoak animatzea da helburua. Deialdia datorren astetik aurrera zabalduko zaie guztiei, eta irailaren 27ra arte edukiko dute erantzuteko epea, igandearekin. 943 37 14 48 telefonora deitu edo [ttakun@ttakun.eus](mailto:ttakun@ttakun.eus) helbidera idatzi daiteke. *Ahobizi* eta *Belarriprest* gisa izena emateko epea beranduxeago irekiko da.

## Herriko entitate erreferenteak

### Elkarteak

- Buruntzaldea IKT
- Erketz EDT
- Intza KE
- Kukuka
- Ostadar SKT
- Sorgin Jaiak
- Ttakun KE
- Ttiriki Ttarraka
- Txistulariak
- Xirimiri
- Zabaleta Auzolan

### Enpresak

- Aldaz Hartz Klinika
- Aldika
- Aldikar
- CEI Prebentzioa
- Digitalak Mobiles
- Factory Logistika
- JEMA
- Setalde
- Telesonic

### Hezkuntza

- Andre Joakina haurresk.
- Burunzpe guraso elk.
- HHI-EPA
- Landaberri guraso elk.
- Landaberri ikastola
- Munteri-AEK euskalt.
- Oriartekide guraso elk.
- Oriarte institutua
- Sasoeta-Zumaburu ikastetxea
- Udal Euskaltegia

### Komertzioak

- Acha-Orbea farmazia
- Ana ile-apaindegia
- Bikain diseinua
- Borobil arkitektura
- Carretero liburu-denda
- Ibaiondo fisioterapia
- Labe Goxo okindegia
- M. Berasategi kafeak
- M. de Miguel farmazia
- Maite Erkizia ile-apaind.
- Maya lenteria
- Noaoa bidaiak
- Okela harategia
- Orbela belar-denda
- Orue farmazia
- Pikabea aseguru artek.
- Raket masajista
- Saltogela psikomotriz.
- Urbistondo farmazia
- Urruzola mertzeria

### Udala

- Lasarte-Oriako Udala

# PLAZAN BAZAN



## Irudi engainariak

Hamar zati hauetatik erdiak irudi handitik eta beste erdiak hartuta daude eta beste erdiak engainariak dira, hau da, oso antzekoak izan arren, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu.



## Bilatuz

Bada gauzatxo bat irudian, inolaz ere agertu beharko ez lukeena, garai hartan asmatu gabea zelako. Zein ote da?

G	T	I		E
		P		T
O	I		P	
		E		
	P			
I	O	E	G	P

## Sudokua

Konturatuko zinenez, orriotako jolas guztiek Antzinako Egipton daude girotuta. Osa ezazu sudokua EGIPTO hitzak dituen hizkiekin (E, G, I, P, T eta O). Gogoratu letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

Pertsonaia honen eta irudi nagusiko bere bikiaren artean dauden




aldeak aurkitu behar dituzu. Hamabi dira guztira.

11+1




# Labirintoa

Aurki ezazu momiaren sarkofagora iristeko bidea, gezi beltzetik abiatuta.



# Mezua

Alfabetoari erreparatuz, asmatu zer dioen papiroak.



# Marraztu

Horra! Momia gaixoa erdizka marraztuta dago. Osa ezazu, mesedez.



# Handitik txikiira

Ordena itzazu katuok, handienetik (1) txikienera (5)



# Ezohiko neurriak hartuz, ikasturte berria abian da

Oriarte Institutuko ikasleek astelehenean ekin diote ikasturte berriari, asteartean Landaberrikoek eta, Sasoeta-Zumaburukoek, berriz, asteazkenean. Segurtasun neurriak errespetatuz sartu dira ikasgeletan. Oriarte Larrekoetxen datorren astean hasiko dira

## Txintxarri

Sei hilabete ikastetxeetatik kanpo egin ondoren, asteartean ekin diote ikasturte berriari Landaberri ikastetxeko eta Oriarte Institutuko ikasleek, Landaberri eraikinean ikasten dute DBH 1 eta 2. mailakoek. Sasoetakoak, berriz, asteazkenean itzuli dira ikastetxera.

Segurtasun neurriak zainduz eta modu ordenatu batean sartu dira Oriarte Institutuko ikasleak Landaberri eraikinera. DBH 1. eta 2. mailako ikasleak lehenak izan dira ikasturte berriari ekiten, eta gogotsu ikusi ditu TXINTXARRI aldizkariak eskola atarian. DBH 3. eta 4. mailakoak eta Batxilergoak datorren astean hasiko dira Larrekoetxe eraikinean.

Maskarak jantzita eta segurtasun distantziak mantenduz, ilaran itxaron dute sarrera iritsi arte. Bertan, eskolako irakasleek temperatura neurtu diete, ikasgeletara sartu aurretik, eta behin lehen sarrerara iritsita, gel hidroalkolikoarekin eskuak igurtzi eta ikasgeletarako bidea hartu dute. Eraikin osoko lur eta paretetan itsatsitako geziei

jarraituz igo dira ikasgeletara, eta txukun-txukun eseri da bakoitza bere mahaian. Segurtasun neurriari eutsiz, irakasleen azalpeni adi-adi hasi dute lehen goiza.

## Aldapatik ikasgeletara

Landaberri LH eraikinean ikasten duten gazteak ere hasi dira. 08:15etik 08:50era iritsi dira autobusak, banan-banan. Ilaran igo dute aldapa neska-mutilek, maskara jantzita eta ilaran. Sarrera nagusia zeharkatu dute, egun hauetan obregatik itxuraldatuta dagoena, eta ikasgeletara sartu, anfiteatro alboko eskuineko hesia jarraituz. Eraikin barruan geziak jarri dituzte ikasleek jakin dezaten nondik sartu behar duten eta nondik irten. Arbelak, klarionak, mahaiak, koadernoak... eta gel hidroalkoholiko poteak. Eskola materialaren parte bihurtu dira.

Astearte goizean itzuli dira, aldiz, Sasoeta-Zumaburuko ikasleak ikastetxera. Hauek ere, segurtasun neurriak txukun-txukun mantenduz ekin diote lehen eskola egunari.

Modu mailakatuan sartu dira Sasoeta-Zumaburuko ikasleak

ikastetxera. LH 5. mailako ikasleak izan dira eskola atarira goizen iritsi direna, eta bertan itxaron dute, irakasleak euren bila jaitsi diren arte.

Bederatzietan puntuan zabaldu dituzte ateak, baina ez ohiko sarrerakoak; ikastetxeko patioetik sartu dira. Ikasgela bakoitzeko irakaslea zain zuten ikasleek, eta elkar agurtu eta gero, ilara batean bildu dira, segurtasun distantziak mantenduz.

Lehen txandako ikasleak bilduta, gelaz gela igo dira ikasgeletara. Hori ere modu ordenatuan egin dute; eskaileren eskuin aldetik igo eta ikasgelara iritsi bezain laster, eskuak gel hidroalkolikoarekin igurtzi eta barrura sartu dira. Ikasgela barruan ere dena prest zuten; ikasle bakoitzaren izena agertzen zen papertxoak jarri dituzte, ikasleek eseri beharreko lekuak identifikatu ahal izateko.

Bigarren txanda ordu laurden beranduago (09:15ean) egin dute, eta horien ostean, hirugarren eta azken txanda (09:30ean) sartu da. Mailak banatu dituzte sarrera txandak horiek. Haur Hezkuntzako haurrak ere bueltatu dira euren ikasgeletara.



Oriarte Institutuko ikasleak sartzeko txanda itxaroten. TXINTXARRI



Ikasleak, lehen eskola egunean, irakaslearen jarraibideak entzuten. TXINTXARRI



Landaberri LHko gaztetxo bat, autobusetik jaisten, eskolara igotzeko. TXINTXARRI



Irakaslea ikasle bati gel hidroalkolikoa botatzen. IXEMA VALLES



Sasoetako ikasleak, ikasgeletara igotzen. TXINTXARRI



Bata bestearen atzetik, modu ordenatuan sartu dira ikasleak ikasgeletara. TXINTXARRI





COVID-19aren kutsatzeak saihestu eta ekiditeko prebentzio eta jarraibideak zehaztuta dituzte herriko ikastetxeek. TXINTXARRI

## Etor daiteekenari aurre hartzeko planak prest

COVID-19ak eragin ditzakeen gorabeherei aurre hartzeko neurriak zehaztuta dituzte ikastetxeek. Segurtasun neurri guztiak errespetatuz, aurrez aurreko eskolekin hasi dira dagoeneko, nahiz eta orain arteko ikasturte hasierekin antzekotasunik ez izan 2020-2021 ak

### Txintxarri

Ikasleak bueltatu dira ikasgeletara, baina ez orain arteko ikasturteetan bezala. COVID-19ak eragindako pandemiari aurre hartzeko eta kutsatzeak ekiditeko ahalginetan, hainbat jardunbide zehaztu ditu Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, eta horiek ardatz hartuta, kontingentzia planak zehaztu dituzte ikastetxeek. Horien

artean, noski, Lasarte-Oriakoek ere bai.

Kontingentzia plan horien lehen lerroetan, prebentzio neurriak finkatu dituzte. Zehaztu dute ikasleek eta ikastetxetako langileek ezingo dutela 37 gradu baino gehiago tenperaturarekin eskolara joan, hortaz, ezinbestean, etxean tenperatura neurtu behar direla eskolara. Oriarte Institutuan, esaterako, ikastetxera sartu

aurretik, tenperatura neurtu diete ikasleei.

Arduradun bakar batek lagunduta joan beharko dira ikasleak eskoletara, eta laguntzaile hori beti pertsona bera izango da. Irakasleak, ikastetxeko langileak edo ikasleak ez diren edozein pertsonak eskoletara sartu nahi badu, hitzordua eskatu beharko du, eta haurrak ikastetxeetan utzi eta gero ezingo dira

eraikinen inguruan geratu, pilaketak ekiditeko.

**LHko ikasleak beti maskarekin**  
LHko lehen mailatik gorako ikasle guztiak musukoa erabili beharko dute uneoro, eta ikasle guztien senide edo arduradunek, harremanetarako telefonoak ahalbidetu behar dizkiete ikastetxeei, kasurik edo sintomarik agertu ezean, harremanetan jarri ahal izateko. Horrekin batera, ikasleek eskolaz kanpoko jardueraren bat egiten badute, hori ere jakinarazi egin beharko diote eskolari, "trazabilitate arrazoiengatik".

Irakasle guztiak ere derrigorrez jantzi behar dute maskara, baina Haur Hezkuntzako ikasleak ez daude maskarak erabiltzera behartuta, nahiz eta Eusko Jaurlaritzak, ahal den neurrian, erabiltzeko gomendioa egin duen.

### COVID-19 kasuak agertzen badira

Koronabirusak eragindako sintomatologia agertzen denerako protokoloak ere prest dituzte Lasarte-Oriako ikastetxeek. COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak dituzten ikasleek eta ikastetxeetako langileek etxean geratu beharko dutela argi zehazten dute ikastetxe bakoitzeko ikasleen familia edo arduradunei bidalitako txostenek.

Gerta daiteke, ordea, sintomatologia ikastetxean bertan agertzea, eta kasu horietarako ere, zehaztu dituzte eman beharreko pausuak.

Sintoma aurkezten duena ikaslea bada, horretarako prestatutako "isolamendu gela" batera joango da irakasle batek lagunduta eta beti ere babes neurriak jarraituz, eta

## DIAGNOSTIKOA JAKIN ARTE, IRAKASKUNTZA JARDUERAK NORMALTASUNEZ MANTENDUKO DIRA

ikastetxeak familiari jakinaraziko dio, ikaslea etxera eraman dezaten. Familiak osasun zentroarekin jarri beharko du harremanetan.

Sintomak dituen Hezkuntza Sailaren menpeko langilea bada, ordea, hori ere isolamenduan jarriko da (maskara jantzita) eta etxera joango da ikastetxeko zuzendaritzari jakinarazi ostean. Azken horrek, Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzuko arlo medikoari jakinaraziko dio.

Hori bai, balizko kasuen diagnostikoak jakin arte, ez da kontatu estuei buruzko ekintzarik adieraziko, eta irakaskuntza-jarduerak "normaltasunez" jarraituko du, higiene neurriak zorrozituz. Kasuak positibo direla baieztatzen badira, ikasleek beraiek, ikasle horien gurasoek edo arduradunek "berehala" jakinarazi beharko diote ikastetxeari, eta Osasun Sailak zehaztutako protokoloa jarriko dute martxan ikastetxeek: "Kontaktuen azterketa egingo da hezkuntza-ingurunean eta hezkuntza-inguruetik kanpo, kontaktuak ezarrita dagoenaren arabera identifikatuz, sailkatuz eta haien jarraipena eginaz".

Koronabirusaren hedapen eta bilakaerak markatuko du, besteak beste, hezkuntzaren eta ikastetxeen norabidea. Momentuz, etor daiteekenari aurre hartzeko gaur-gaurko neurriari utsiz abiatu dute 2020-2021 ikasturtea.

## Eskola materiala erosteko laguntzak

Uztailaren 1etik irailaren 30era bitarte egindako erosketak lagunduko ditu udalak. Hori bai, diru laguntzak eskatzeko eskaera orriarekin batera, herriko dende emandako tiket edo faktura sinplifikatuak aurkeztu beharko dira. Diru laguntza eskaerak aurkezteko epea, berriz, irailaren 1ean zabaldu eta urriaren 1ean amaituko da.

Lehen eta Bigarren Hezkuntzako haurrak dituzten familiei laguntzea da udalaren helburuetako bat, baina horrekin batera, herriko komertzioak babestea; hain zuzen ere, erosketak herriko dendetan egitea ezinbesteko baldintza baita.

Laguntzak, gehienez, 110 euro, 90 euro edo 50 eurokoak

izan daitezke, familia unitateko kide guztien errentan oinarrituta.

40.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten familiei bideratuta dago udalaren eskola materiala erosteko diru laguntza. Orain arte 10.000 euro bideratu badituzte ere, aruten, Koronabirusak eragindako egoera dela-eta 20.000 euro zuzenduko dituzte.

## Hezkuntza greba deialdia, 15ean

Ikasturte berriari ekin eta berehala, greba egingo dute Gipuzkoa, Bizkaiko eta Arabako ikastetxeek. ELA, LAB, CCOO, UGT eta Steilas sindikatuek bat egin dute greba antolatzeko, eta hezkuntza publikoari zein itunpekoari eragingo dio deialdiak. *Gure ikastetxeetan aurrez aurreko itzulera segurua eta adostua* lemapean, sindikatuek salatu dute "eskasak" direla Eusko Jaurlaritzak hartutako neurriak.

Ostegun goizean Jokin Bildarratz Hezkuntza Sailburu berria aipatutako hezkuntzako sindikatuekin eta hezkuntza komunitateko beste zenbait ordezkariarekin greba deialdia bertan behera uzten saiatzeko bildu bada ere, momentuz, deialdiari eustea erabaki dute ordezkariak.



LOKE gimnastikako kideek udan ikastaroa izan zuten Michelin Kirol Guneko pilotalekuan. TXINTXARRI

# Kirol taldeak lanean hasi dira

Lasarte-Oriako kirol talde desberdinek euren jarduna hasi dute. Maila federatuetako taldeak dira saioak hasiko dituztenak. Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimenaren zain daude hamabi urte azpiko gaztetxo eta haurren jarduna noiz hasiko den jakiteko

## Txintxarri

Lasarte-Oriako kirol taldeak lanean hasteko prest dira. Boleibola, saskibaloia, judoa, gimnasia... Pixkanaka-pixkanaka herriko kirol taldeak denboraldi berria prestatzeko lehen pausoak ematen ari dira. COVID-19aren garapena dela eta, batzuek ez dute sei hilabetetan entrenatu eta gogotsu daude berriro ere haien kirol kideekin bat egiteko.

Neurriek eta baimenek batzuen jarduna eragozten dute, ordea. Oraingoan, federatutako taldeak hasiko dira lanean. 12 urte azpiko gaztetxo eta haurrek Gipuzkoako Foru Aldundiak baimena eman arte itxaron beharko dute.

## Saskibaloia

Ostadar SKTko Saskibaloit taldeetako batzuk uztailean udako saioak egin zituzten neurri zorrotzak jarraituz.

Endika Marrahi ataleko arduradunak azaldu digunez, "saio horien helburua gorputza

kirolera ohitzea zen berriro. Prebentzio neurriak jarraitu genituen. Garrantzitsuena da ezin dugula kontaktua eduki gure artean eta zaila izan da entrenamenduak modu horretan egitea".

Abuztuaren hirugarren astean junior eta kadete errendimendu eta partizipazio mailako lau taldeak lanean hasi ziren, Michelin kirol gunean eta irailean ohiko entrenamendu eremura itzuli dira, Maialen Chourraut kiroldegira. Aste honetan senior neskek eta junior neskek hasi dira lanean.

Marrahi azpimarratu duenez, errendimendu taldeetako kideek bakarrik dakite noiz hasiko diren lehiari. Gainerakoak zain daude.

"Prebentzio neurri asko jarri dizkigute, daukagun egoera gogorra da baina kirola egiteko aukera dugu, ez dela gutxi", gehitu du Saskibaloit ataleko arduradunak.

## Gimnastika

LOKE elkarteetako gimnastika taldea ere Maialen Chourraut kiroldegiko kantzara itzuli da. Asteazkenean izan zuten taldeko kadete, jubenil eta senior mailako kirolariak lehen saioa.

Maite Rueda arduradunak aipatu digunez, asteartetik ostiralera, 18:30etik 20:00etara Maialen Chourraut kiroldegian eta ostiraletan, 18:00etatik 20:00etara Michelingo kirol guneko pilotalekua erabiliko dute denboraldi honetan. "Kirol gunean ostiraletan bakarrik egongo gara lanean eta bertan taldeek egingo dute lan".

Oraingoan, gimnastikako lagunek ez dakite noiz hasiko diren lehiari, ezta zein baldintzatan ere. "Ez dakigu bakarka bakarrik lehiatu ahalko den. Taldeak bikoteetan banatu eta bakarkako txapelketan parte hartu ahalko duten. Hor arazo bat dugu, bakarkako eta taldeko tresnak ez dira berdinak..."

Ziurgabetasun handia dago eta informazioa pixkanaka-pixkanaka iristen zaigu. Guk lana aurreratzeko taldeetako kideak bakarkako lana egiten jarriko ditugu oraingoan", jakitera eman du.

## Boleibola

Maialen Chourraut kiroldegiko kantzara erabiltzen duen beste taldeetako bat. Ostadar SKTren boleibol taldea dugu. Irailaren 4an, ostiralarekin hasi zituen saioak Asier Acuriolak zuzentzen duen taldeak eta dena ongi bidean, urria bukaeran hasiko du lehiaketa denboraldia.

Hamaika jokalarit dituzten lanean, baina besteren bat ere aurki bat egitea espero du boleibol taldeko arduradunak. "Topea hamalau fitxa dira", azpimarratu du.

Entrenamenduak Maialen Chourraut kiroldegiko kantzara nagusian dira astelehenean 18:30etik 20:00etara eta ostiraletan 16:00etatik 17:30era.

## Judo

LOKE Judoko kideak astelehenean hasi ziren lanean. Kadete mailatik gorakoak izan dira lanean hasi direnak eta astelehen, asteazken eta ostiraletan bilduko dira 19:30etik 21:00etara saioak egitera.

Gorka Aristegi entrenatzaileak azaldu duenez, Udalaren protokoloaz gain, protokolo propioarekin egingo dute lan tatamian.

## Igeriketa

Maialen Chourraut kiroldegiko kantzara gain, igerilekua ere kirolarien zain dago. Iazko denboraldia itsasoan amaitu ostean, Buruntzaldea IKTko kadete, jubenil eta absolutu mailako igerilariak, berriro ere, Maialen Chourrauten hasiko dute bere jarduna, irailaren 14an.

Buruntzaldea IKTko arduradunak entrenatzen hasiko diren igerilariarekin harremanetan jarriko dira baldintza zehatzak helarazteko.

Masterrek, berriz, uztailean igerilekuan eman zioten amaiera ikasturte bereziari eta atsedean egongo gehiago izango dituzte. Urriaren 5ean hasiko dituzte saioak.

## Futbola

Futbol elkarteetako talde federatuek ere baimena dute

entrenamenduekin hasteko. Michelingo kirol guneko futbol zelaiaren banaketa eta ordutegiak zehazteke daude, ordea. Gaur dute bilera.

Ostadar SKTko arduradunak jakitera eman digutenez, irailaren 14an, astelehenearekin saioekin hasteko asmoa dute. Taldeak Emakumezko Erregionala, Gorengo Erregionala, 1. Erregionala, Ohorezko kadetea, kadete 1. mailako bi talde, Ohorezko infantila eta Infantil txikikoa dira.

Texas Lasartearra taldeko infantil eta kadete taldeak irailaren 15ean dira lanean hastekoak. Oraindik baieztatzeke, astearte eta ostegunetan egingo dituzte saioak, 19:30etik aurrera. Gainerako taldeekin urrian lanean hasteko asmoa dute eta horregatik izena ematea irekita dutela jakitera eman dute.

## Areto-futbola

Eguzki Areto-futbol elkarteetako kideek oraindik ez dute hasiera datarik.

Federazioek maila ez profesionaletako denboraldietako hasiera data zehazteko dituzte eta horien arabera, lanean hasteko asmoa du areto-futbol taldeak.

## Ez federatuak, zain

Lasarte-Oriako kirol egoeraren aurpegia federatutako kirolarien lan hasiera bada ere, egoerak badu bere gurutzua. Elkarrekin ez dakite 12 urtez azpiko ez federatuak noiz hasi ahalko diren lanean. Gipuzkoako Foru Aldundiak ez du baimenik eman oraindik maila horietako haur eta gaztetxoek kirol-jarduerarik egin dezaten.

LOKE gimnastikako Maite Ruedak egoera zail ikusten du. "Ez dakigu noiz hasi ahalko diren. Batzuek urria diote, besteek azaroa eta besteek urtarrilera arte ezingo direla hasi. Gure kasuan, gimnasia taldearen bi heren dira maila horretako kirolariak eta taldearen harrobia, gainera".

Kezkatuta agertu da LOKE judoko arduradun Gorka Aristegi ere, "belaunaldi bat galdu ahal dugu". Oztopo pila ari dira jartzen eta ez dakit hartu duten erabakia noren mesedetan egiten duten. Kirola eta haurren alde ez, nire ustez". Zain daude, beraz, taldeak euren jarduna %100ean egin ahal izateko.

# "Ohorezko txandan edozer gerta liteke"

**AIORA BELARTIETA** ARRAUNLARIA

2019an hasi zen arraunean Lasarte-Oriako gaztea eta Kontxako Banderako Ohorezko txandan lehiatuko da igandean, Donostiako Arraun Lagunak taldearen Lugañenen

## Nerea Eizagirre


Lasarte-Oriak ordezkaria izango du XIII. Emakumeen Kontxako Banderako Ohorezko txandan. Aiora Belartieta eta Donostia Arraun Lagunak traineruak hirugarren postua eskuratu zuten lehen jardunaldian eta igande honetan, Orio, Donostiarra eta Tolosaldea izango dituzte arerio Kontxako badian. 2019an hasi zen arraunean Belartieta (Lasarte-Oria, 2002). Txikitatik erakargarria egiten zitzaion kirola probatu eta egun arraunaren lehen mailan ari da lehian. Aurtengo denboraldi bereziari eta Kontxako Banderari buruz hitz egin dugu Lasarte-Oriako arraunlari gaztearekin. **Urtebete arraunean egin eta Donostia Arraun Lagunak eskifaian egin duzu debuta danboraldi honetan. Nolako esperientzia izan da?**

Aurten lehengo urtean baino estropada gehiago jokatu ditut eta izugarria izan da esperientzia.

Urte batetik bestera jauzi handia egin omen dut bai teknikoki bai fisikoki ere.

**Euskotren Liga hirugarren amaitu duzue. Zer nolako irakurketa egiten duzue?**

Ez gera guztiz gustura geratu egindako denboraldiarekin. Badakigu gure taldeak gehiago eman dezakeela. Gainera, bi



Aiora Belartieta Kontxako Banderako Ohorezko txandan lehiatuko da. A. BELARTIETA

berrogeialdiek egoera zaildu digute.

**Euskotren Ligan, baita Kontxako Banderan ere berrogeialdien eragina somatuko zenuten?**

Bai, bi berrogeialdiek eragin handia izan dute. Denboraldiaren erdialdean, etxe barruan bakarrik entrenatzeak kalte handia egin digu.

**Bigarren berrogeialdiaren ostean, sailkapen saiora ozta-ozta iritsi zineten. Aste bete baino gehiago**

**uretan egon gabe eta erlojupekoan hirugarren egin zenuten. Etxean egon zareten bitartean gogor egin duzue lan, ezta?**

Bai, horrela da. Berrogeialdian ere etxean entrenatu dugu. Urte hau guztia pasa eta gero, Kontxako Bandera jokatu nahi genuen. Zorionez sailkapenera iritsi ginen.

**Donostiako badiako baldintza bereziak ezagutzeak ere lagunduko zuten sailkapenean?**

## Borrokatutako sailkapena

Irailaren 6an, igandearrekin jokatu zen lehen jardunaldia. Ohi baino ordubete lehenago eta zaletuen berotasunik gabe irten ziren traineruak Kontxako badiara.

Lehen txandan lehiatu zen Belartieta kide duen Donostia Arraun Lagunak eskifaia, 3. kalean, San Juan, Tolosaldea eta Hondarribiaren aurka.

Irteera ona egin eta aurre hartu bazuten ere, berehala nagusitu zitzaion Tolosaldea; eta bigarren postua Hondarribiarekin borrokatu beharko zutelarik zirudien. Bi olatu erabakigarri hartu zituen, ordea, Lugañeneko eskifaia. Lehenarekin aurre hartu zien berdeei, eta bigarrenarekin,

Tolosaldeko traineruarekin zuen tartea nabarmen moztu zuen. Hala, 400 metro baino gutxiago falta zirela, aurre hartu eta lehen postuan amaitu zuen.

Bigarren txandan, faborito nagusia den Orio izan zen azkarrena eta bi segundo luzeko aldearekin bigarren, Donostiarra.

Sailkapena:

1. Orio 11:10.26
2. Donostiarra 11:12.48
3. Arraun Lagunak 11:23.86
4. Tolosaldea 11:27.80
5. Hondarribia 11:28.60
6. Hibaika 11:31.52
7. Zumaia 11:39.82
8. San Juan 11:51.14

Denboraldi osoan zehar Kontxako badian entrenatzen gara eta nik uste dut horrek asko lagundu digula sailkapenean hirugarren postu hori lortzeko, eremua ezagutzen dugulako.

**Aurreko jardunaldian lehengo txandan egon arren, hirugarren denborarik onena egin zenuten. Ohorezko txandarako sailkapena lortzea zenuten buruan?**

Bai, gure helburua ohorezko txandan sartzea zen eta lortu dugu.

**Nola bizi duzu Kontxako Banderan parte hartu ahal izatea eta Ohorezko txandan parte hartu ahal izatea?**

Kontxako Bandera oso estropada berezia izaten da eta aurten COVID-19a dela eta ez da egon betiko giro polit hori baina asko disfrutatu det arraunean.

**Igandera begira zail izango da Euskotren Ligan nagusi izan den**

**Orio garaitzea. Donostiarra eta Tolosaldea ere indartsu iritsi dira, zein da zuen helburua?**

Hurrengo igandean edozer gerta liteke.

Aurreko igandean batzuek Tolosak irabaziko zuela pentsatzen zuten baino ez zen horrela izan, beraz edozer pasa daiteke.

Gu beti bezela ohorezko txanda irabaztera edo estropada txukun bat egitera joango gara.

**COVID-19a dela eta, aurten ia ikuslerik gabeko probak izan dituzue, ikusleen bultzada hori falta izanak arraunean eragiten du?**

Arraunean azken finean ekipokoak gaude bakarrik uretan eta gure artean animatzen saiatzen gara. Egia da Kontxako Banderan jendea ez egotea oso tristea dela. Arraunlari guztiok hori faltan botatzen dugu.

## Hipodromoak, zaldi lasterketa denboraldi bereziari agur

Ikuslez betetako Hipodromoan, *Iskanderhon* zaldiak irabazi zuen Donostiako Sari Nagusia

### Txintxarri

Donostiako Hipodromoak eta zaldien zaletuek igandean agur esan zioten 104. denboraldiari.

Ekainetik 81 lasterketaz gozatu ahal izan dituzte zaletuek, batzuk etxetik eta besteak Hipodromoan

bertan eta igandean, ez zuten hutsik egin harmailak beteaz.

Hasieratik bukaera, zirraraz betetako arratsaldea izan zen igandekoa. Nagore Otaño sariak eman zion hasiera arratsaldeari. Lara Martinezek gidatuta *Algaida*

behorra izan zen garailea. Momentu hunkigarriena lasterketa baino lehen bizi izan zen. Paddockean, parte-hartzaileek 2007 urtean Hipodromoan zendutako hockeya gogoan izan zuten-eta.

Arizkorretak prestatutako beste zaldi batek ere lortu zuen arratsaldeko bigarren saria, *Natural Talent*. J. L. Martinezek Errazu obras probako gorenera eramane zuen. Ignacio Melgarejok eta Christian Delcher prestatzailearen *Aladierna* behorak 14+1 Comunicación Saria



Grosjean garaipena ospatzen. ISAAC FARRÉ RICO

eskuratu zuten eta arratsaldeko laugarren lasterketan, Serbilan Soc. Cooperativa sarian, prestatzaile portugaldarrak izan ziren nagusi. Garaikurra Pereira entrenatzailearen *Iron Rock* zaldiak eraman zuen.

Donostia Sari Nagusian ez zen ezustekorik izan eta aurtengo Urrezko kopako irabazle Grosjean hockeyaren eskutik, *Iskanderhon* zaldiak erraz eraman zuen garaipena. Jardunaldiari amaiera emateko, parapentelari bat jaitsi zen zerutik.

# Etxeberriak eta Pozok, lasterketa gogorra

Tropelean iritsi dira helmugara eta esprintean erabaki da Espainiako Txapelketa. Arrazoi pertsonalengatik, Beñat Carbayedak ezin izan du parte hartu lehiaketan. Buruntzazpiko txirrindulariek lasterketa gutxi lehiatu ahal izan dituzte uda honetan

## Txintxarri

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako Haimar Etxeberria eta Asier Pozo junior mailako Espainiako txirrindulari onenen aurka lehiatu ziren irailaren 6an, igandearekin, Lluçmajorren (Balear Uharteak). Euskadiko selekzioak Beñat Carbayedak gaztea ere erlojupeko eta lerroko proban parte hartzeko aukeratu arren, herritarrak ezin izan zuen Balear Uharteetara bidaiatu arrazoi pertsonalak zirela eta.

Etxeberria eta Pozok 134 kilometrotako lerroko proban parte hartu zuten. Eugenio Pozo Buruntzazpiko prestatzaileak azaldu modura proba gogorra izan zen. "Lasterketako abiaduraren batz bestekoa, 42,5 kilometro ordukoa izan zen eta ibilbidean zehar, eraso ugari izan ziren. Horrek, txirrindulari ugari lasterketa bertan behera uztea ekarri zuen".

Valentziako erkidegoko kideek kontrolpean izan zuten lasterketa hasieratik eta gainerako korrikalarien ihesaldi eta eraso ezberdinak zapuztu zituzten. Ondorioz, 40 korrikalariko tropela iritsi zen azken kilometrora, Etxeberria eta Pozo tarteko. Esprintean jokatu behar izan zuten gutzia parte-hartzaileek eta Valentziako Erkidegoko Juan Ayusok titulua berretsi zuen. Buruntzazpi eskolako Etxeberriak hamabigarren igaro zuen helmuga; Pozok, ordea, hemezortzigarren.

## Lasterketa gutxi

Buruntzaldean IKTKo txirrindulariak proba gutxitan parte hartu ahal izan dute errepideko denboraldi berezi honetan. Junior mailako korrikalariak Zumaian, Berriatuan (Bizkaia) eta Beasainen izan dira lehian; kadeteak, berriz, Zumaian eta Urretxun.



Pozo, laugarren ezkerretik, eta Etxeberria, bigarrena eskubitik, irteeran. E.POZO

Abuztuaren 9an, Gipuzkoan antolatzen zen junior mailako lehen proban parte hartu zuten junior mailako hirukoak, Joxe Mari Korta proban.

153 korrikalari izan ziren irteeran eta 83 kilometrotako ibilbidea txirrindularien egoera ikusteko baliagarri izan zen, 97 partehartzaile bakarrik iritsi ziren helmugara. Buruntzazpiko Asier Pozo eta Haimar Etxeberria txirrindulariak lehen postuetan egon ziren, bosgarren eta seigarren, hurrenez hurren.

Euskadiko txapelketa, berriz, abuztuaren 14an jokatu zen Berriatuan. Erkidegoko 163 txirrindulari batu ziren irteera puntuan eta 101 kilometrotako ibilbidearen ostean, Haimar Etxeberria podiumeko hirugarren mailara igo zen. Gainerako kideak lehen hogeien artean iritsi ziren helmugara: Beñat Carbayedak zortzigarren postuan eta Asier Pozo hamalagarren postuan.

Espainiako txapelketa baino lehen, prestaketa-lasterketa izan zuten Buruntzazpiko kideak abuztuaren 30ean, Gipuzkoako Klasika. Estatu guztiko eta Frantziako taldeak lehiatu ziren proban. Etxeberriak eta

Carbayedak Euskadiko selekzioarekin parte hartu zuten eta Pozok, berriz, Gipuzkoako selekzioarekin.

Eguraldia ez zuten lagun izan, ordea. Eurriak ez zuten atsedenek eman eta ibilbideko 115 kilometroak egitea ez zen erraza izan gazteentzat. Eroriko ugari egon ziren eta korrikalari ugari lasterketa utzi zuten. Pozok eta Etxeberriak, esate baterako, erorikoa izan zuten helmugatik 200 metroetara.

Hala eta guztiz ere, Beñat Carbayedak hamahirugarren izan zen helmugan; Etxeberria 44. postuan igaro zuen helmuga eta Pozok 45. postuan.

Kadete mailako Daniel Furshenkok eta Adur Tapiak ere ez dute ia errepidean ibiltzeko aukerarik izan.

Zumaia sarian lehiatu ziren, abuztuaren 22an eta irailaren 6an, igandearekin, Gipuzkoako txapelketa zen A. Mendijur oroimenezkoan ere parte hartu zuten.

Furshenko izan zen bi probetan emaitza hobereana lortu zuen Buruntzazpiko txirrindularia. Gipuzkoako txapelketan, esate baterako, zortzigarren izan zen helmugan.

## 300 dortsalera mugatu dute II. Mendi Festaren izen-ematea

Parte-hartzaile kopurua mugatzeaz gain, Ttipi-Ttapa ibilbidea ez egitea erabaki du Lasarte-Oria Trail elkarteak

## Txintxarri

Irailaren 27an, Lasarte-Oria inguruko mendiez gozatzeko aukera izango da Lasarte-Oria Trail kirol elkarteak antolatutako II. Mendi Festan. COVIDen hedapena eta horren aurkako neurriek baldintzatuta, parte-hartzaileen kopurua mugatu duela jakitera eman du elkarteak, baita Ttipi-Ttapa ibilbidea ez dela egitea ere.

Lasarte-Oria Trail kirol elkarteko kideek Eusko Jaurlaritzak pandemiaren hedapena geldiarazteko ezarritako COVIDen aurkako arauak betetzeko laguneko gehieneko kupoa ezarri du. "Gobernuaren aginduak aukera ematen du jendaurreko lehiaketak, ekitaldiak eta kirol-ikuskizunak aire zabalean egiteko, gehienez ere 1.000 pertsona, baina Mendi Festaren antolakuntzatik uste dugu nahikoa dela 300 inskripzio baino ez eskaintzea, probaren garapena hobeto kudeatzeko," adierazi dute sare sozialen bitartez.

Ondorioz, Ttipi-Ttapa ibilbidea eta 16 urtetik beherakoen parte-hartzea bertan behera geratuko dira. Kirol elkarteko kideak Ttipi-



Lehen edizioko irudia. TXINTXARRI

Ttapa ibilbidean izena ematen duten herritarrekin harremanetan jarriko dira dirua itzuli edo, heldua izanez gero, ibilbidez aldatzeko.

Proba luze eta laburretako izena ematea indarrean darrai Kirolprobak orrialdean eta irailaren 23an, 24an eta 25ean, 17:00etatik 20:00etara, Manuel Lekuona Kultur Etxeko kafetegian ere izango da aurrez aurre inskripzioa egiteko aukera.

Lasarte-Oria Trail kirol elkarteko webgunean II. Mendi Festaren eta aurrez aurreko izena ematearen protokoloa kontsultatu dezakete parte-hartzaileek.

## Furundarena, Espainiako txapelketarako sailkatua

Atleta gaztea Alcobendasen (Madril) lehiatuko da bihar. Rekondok hogeitazentimetrogatik ez du lortu txartela

## Txintxarri

Naroa Furundarena atleta gaztea maila absolutuko Espainiako txapelketako jauzi hirukoitzeko proban lehiatuko da bihar, irailaren 12an, larunbatarekin, Alcobendasen (Madril). Neguko txapelketaren antzera, Espainiako jauzilari onenei egin beharko die aurre Lasarte-Oriako gazteak.


Naroa Furundarenak eta Maider Rekondok denboraldian zehar eskuratutako marken kontuan izanda, Ostadar SKTKo Atletismo saileko kideak zain zeuden Espainiako txapelketan lehiatuko ziren jakiteko. Izan

ere, COVID-19arengatik Espainiako federazioak ezarritako marken arabera haien parte hartzea ez baitzen ziurra.

Asteartean, Espainiako federazioak parte-hartzaileen zerrenda jakitera eman zuen eta Ostadar Atletismo Saileko kideek Furundarena bakarrik sailkatu zela jakin zuten.

"Pena da Maider Rekondo ez dute diskoko proban onartu hogei zentimetrorengatik. Baina hurrengo lehiaketetan bere ordaina hartzeko aukera izango du ziur", adierazi du Oscar Goikoetxea prestatzaileak.

ZORION AGURRAK



**Unai**  
Bagoazela gora e! Nork esango luke 28 urte. Jarraitu horrela. Besarkada handi bat eta zorionak.

**Urte askotarako!**

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu Txintxarriren bidez zoriontzeko:

**Internet**

Txintxarri.eus-en txintxarri.eus/zorionagurra eta Bidali zure zorion agurra formularioa bete. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

**Posta elektronikoa**


Mezua bidali txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo asteazken argitaratuko ditugu.


KOMIKIA




EGURALDIA LASARTE-ORIAN




**Larunbata, 12**




**Igandea, 13**




**Astelehena, 14**




**Asteartea, 15**



**Asteazkena, 16**



**Osteguna, 17**



HILDAKOAK

**Luz Fernandez Fernandez.** Irailaren 8an.  
**Antonio Lopera Santiago.** Abuztuaren 29an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

**OSTIRALA, 11 DE ORUE**  
**LARUNBATA, 12 ACHA-ORBEA**  
**IGANDEA, 13 ACHA-ORBEA**  
**ASTELEHENA, 14 DE MIGUEL**  
**ASTEARTEA, 15 LASA**  
**AZTEAZKENA, 16 GIL**  
**OSTEGUNA, 17 ACHA-ORBEA**

**EGUNeko FARMAZIAK: 9:00-12:00**  
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00**  
Urrutia-Martin: Etxeberri auzoa 1 (Florida auzoa), Hernani/ 943 55 77 38

**Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.**  
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

**UDALAREN TELEFONOAK:**  
ERREGISTROA: 943 371 629  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184  
KIROLDEGIA: 943 376 182  
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179  
KIUB: 943 361 605  
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621  
MUNTERRI AEK: 607 625 233

**LARRIALDIKO TELEFONOAK:**  
OSASUN ZENTROA: 943 007 960  
DYA: 943 464 622  
GURUTZE GORRIA: 943 363 953  
UDALTZAINAK: 943 362 442  
ERTZAINZA: 943 538 840  
SOS DEIAK: 112

OHARRAK

**Biyak Bat elkarte**

Biyak Bat zahar egoitzak ohar baten bidez jakinarazi du, COVID-19ak eragindako egoera dela-eta, aurtengo Gabonetako loteriaren salmenta aurreratu egingo dutela.

Datorren asteartetik aurrera erosi ahal izango da loteria. Astearte eta ostegunetan egingo dute salmenta, 13:30etik 12:30erako ordutegian.

Gogorarazi dute baita ere, azaroaren 30era arte gordeko zaiola partizipazio bana, egoitzako bazkide bakoitzari.

SUDOKUA

	5			7		1	8
			5	2		6	4
4		9		8		5	
5		3		8	1	4	
1				2			6
	8	4		7		2	1
	6			1		3	7
		2	8		5		9
	1	5	7				4

## AZOKA TXIKIA

### LANA

#### ESKARIA

Lan bila nabil geriatría arloan, dokumentazio guztia eguneratuta daukat eta 15 urteko esperientzia. Harremanetarako zenbakia, 690 146 067

Lan bila ari naiz, asteburuetan jarduteko, orduka. Harremanetarako zenbakia, 639 740 900.

Haurrak zainduko nituzke, ikastolara sartu bitartean. Harremanetarako zenbakia, 630 682 716.

### ETXEBIZITZAK

#### ERRENTAN

Etxea partekatzeo neska baten bila gabiltza.

Interesatuok jarri nirekin harremanetan, 666 320 520. (Nekane).

Etxea behar da Lasarten bizi dan familia batentzat. 5 lagun dira senar emazte eta 3 seme alaba. Harremanetarako zenbakia, 661 39 62 99.

### SALDU

Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseo aukia + Maxicosia. Arina, eroso eta erraz erabiltzekoa. 2017. urtean erositua. Haur batek bakarrik erabilia. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 250 euro. Harremanetarako zenbakia, 646 824 466.

### NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira soilik

### TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

**TAMAINA BERRIA**  
Modulo handia. 20€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus  
646.824466

## ESKELA


ESKELAK JARTZEKO

**TEL: 943 37 14 48**  
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**  
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz  
Lasarte-Oriako etxe guztietan **943 37 14 48**

## MANTTANGORRI HIRIBUSA



## Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

## txintxarri

www.txintxarri.eus

### Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 LASARTE-ORIA  
G-20407557

### Administraria

Nerea Garziarena.

### Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,  
Maddi Zaldúa eta  
Maitane Aldanondo.

### Publizitatea

Iraiti Zatarain.

### Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Maider Galardi, Mikel Yárza,  
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta  
Aizpea Amas.

### Banatzzaileak

Julene Iraola eta Uxue Odriozola,  
Egoitz Epelde, Erlantz Ezeiza, Jose  
Lanchas eta Iñigo Garcia.

### Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

### PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
publizitatea@ttakun.eus

### EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
txintxarri@txintxarri.eus

### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

### Lege Gordailua:

SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.350 ale

## BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

## DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



## ZIZURKIL Umore-ikuskizuna

Mikel Bermejo herritarrak beste 4 komikoekin batera *Impro-komeryak* helduentzako antzerkia eskainiko dute. Inprobisazio ikuskizun bat da eta umorezkoa, *komeriyak* hitz joku horrek adierazten duen moduan. Sarrera doakoa da, Zizurkilgo udal bulegoan eskura daitezke.

Igandea 13, 19:30ean, Joxe Arregi plaza.

## OSTIRALA 11

### LASARTE-ORIA Aurkezpena

Herritar talde batek *La Rusia* kulturagune proiektua aurkeztuko du. Asistentzia alde aurretik konfirmatu behar da 699 865 948 zenbakian.

Kultur etxeko hitzaldi aretoa, 18:00etan.

### DONOSTIA Bertsolaritza

*Donostia Bertsotan* ikuskizuna eskainiko dute. Bertsolariak: Unai Agirre, Amets Arzallus, Nerea Ibarzabal, Oihana Iguaran, Maialen Lujanbio y Aitor

Mendiluze. Gai jartzailea: Saroi Jauregi. Gonbidapenarekin. *Donostiakultura.eus* webgunean eskuratu daitezke.

Trinitate plaza, 20:00etan.

## LARUNBATA 12

### ASTIGARRAGA Azoka

Erribera kulturagune berriaren inaugurazio festa egingo dute. Besteak beste Zozongo batukada eta Kita del Pare txaranga; Agin Laburu bertsolaria; Aurkia Ahizpak; Astigar Dantza Taldea eta Txirriskla Txistulari Taldea; Tessa Andonegi eta Inma Aramburu, Zozongo batukada eta

Dynamic Dantza Akademia; Deblauki musika taldea; Xuira taldearen dantza akrobatikoa, Iñaki Dieguez eta Iker Telleriaren musikarekin; Klara Mendizabal sopranoa eta Joana Otxoa de Alaizaren emanaldiak ikusteko aukera egongo da.

Erribera kulturagunea, 09:30etik aurrera.

### AMASA-VILLABONA Azoka

Irrintzi elkarteak urteroko Azoka Berezia antolatu du. 25. aldian izango du elikagai eta artisautza azoka honek, eskualdekoak bezala, Euskal Herri osotik etortzen diren ekoizleak egongo dira. Azokaz gain, urtero legez, Aiztondoko elkartearen arteko Isats gisatuaren lehiaketa ere egin nahi dute.

Erreboteko plaza, 09:30etik 14:00etara.

### HERNANI Azoka

Bigarren eskuko azoka. Mota askotako produktu, material eta objektuak eskuratzeko aukera izango dute bertaratzen direnek.

Urbieta kalea, 10:00etatik 13:30etara.

### USURBIL Irteera

Harría Hitz bisita gidatua herrigunean: Dema Plaza, Udarregiren omenezko eskultura, Zumetaren murala, Mikel Laboa plaza, Tapiaren murala, Askatasuna plaza, Sagardoaren monumentua. Prezioa: 5 euro. Izen-

ematea: alde aurretik 688 81 80 17 telefono zenbakian edo [info@kultour.pro](mailto:info@kultour.pro) helbidean.

Usurbilgo frontoia, 11:00etan.

### DONOSTIA Antzerkia

Sarini Zirko konpainiak aurkeztutako *Txoriak Txori* zirko ikuskizuna eskainiko du. Familia ikuskizuna hizkuntza unibertsala, poetikoa eta dibertigarria da. Gonbidapenak alde aurretik erreserbatu beharko dira [larrotxenekulturetxea@donostia.eus](mailto:larrotxenekulturetxea@donostia.eus) helbidean edota 943 29 19 54 telefonoan eskatuta.

Intxaurrendoko Larrotxeneko plaza, 12:00etan.

### HERNANI Ikuskizuna

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek *Bizi dantza* ikuskizuna eskainiko dute. 16:30eko sarrerak agortuta; 19:00etako emanaldirako sarrerak salgai daude Hernaniko Udal Musika Eskolan eta internet bidez kutxabank-eko webgunean.

Atsegindegi plaza, 16:30ean eta 19:00etan.

### ZIZURKIL Jolasak

*Meloren bila* pista jolasa haurrentzat, 6 eta 12 urte bitartekoentzat egokituta dago. Haurrak hamarrekotaldetan joango dira, begiralea barne. Helburua Melo eta bere lagunak bilatzea izango da.

Joxe Arregi plaza, 18:00etan.

## IGANDEA 13

### DONOSTIA Giza Katea

Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak Zubietako erraustegia geratzeko eskatuz Giza Katea antolatu du *Erraustekarik ez! Donostia zaborretan itota* aldarriean. Aurreko urteetan ez bezala, oraingoan Giza Katea hondartzatik La Perlaraino joango da eta pasealekutik abiatu den lekura itzuliko da, bidean geldialdirik egin gabe eta pertsonen arteko segurtasun tarte mantenduz.

Alderdi Eder, 11:00etan.

## ASTELEHENA 14

### HERNANI Tailerrak

Etxeko txikiak, auzoetan egingo diren tailerretan parte hartzeko aukera izango dute. Izena emateko aukera dago oraindik.

Auzo elkarteak.

## ASTEARTEA 15

### HERNANI Mintegia

Emakumeen euskal literatura ikuspegi feministatik mintegia eskainiko da. Gidaria Kattalin Miner izango da, eta solasaldia Mari Luz Estebanek eskainiko du.

Biteri kultur etxea, 19:00etan.

## Parte hartzeko azken egunak

### Txintxarri

Irakurle, garaiz zabilta oraindik udan zehar atera dituzun argazkiak TXINTXARRI aldizkariara bidali eta antolatu dugun udako lehiaketan parte hartzeko. Azken eguna irailaren 13a izango da, igandea.

Parte hartzeko <https://txintxarri.eus/lehiaketa/1596097948196> estekan sartu eta formularioa bete beharko duzue. Bestela,

[txintxarri.kazetaria.1@ttakun.eus](mailto:txintxarri.kazetaria.1@ttakun.eus) helbide elektronikora ere bidal ditzakezue. Argazkiek orijinalak izan behar dute, norberak ateratakoak, eta hiru irudi bidali ahalko ditu parte-hartzaile bakoitzak.

Irailaren 14an bozketa-epa zabalduko dugu, zuen iritziz onenak diren argazkiak aukera ditzazuen. Irabazleak Aldika enpresaren kutixi produktu sorta bat irabaziko du. Animatu eta parte hartu!



www.electricidadarregui.com  
tienda.electricidadarregui.com  
(on-line denda)

## Eskola eta lantokira itzulera!

### Normaltasun berrira egokitzen lagunduko zaitugu!

- Janaria eta edaria hotz edo bero mantentzeko
- Aukera zabala

**Neopreno zko maskarak**

3-6 urte  
6-12 urte  
Helduak







Eskatu whatsapp bidez!  
**600 85 75 86**



Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21



**DIRU-LAGUNTZAK BADAUDE. GALDETU BALDINTZAK**

## 2020-2021 ikasturtea UDAL EUSKALTEGIAN

**A1 eta A2 tituluak euskaltegia bertan lortzen dira. B1 (1HE), B2 (2HE) eta C1 (3HE-EGA)eko azterketak egiteko prestatu.**

**IKASTAROAREN IRAUPENA: IRAILAREN 24TIK EKAINAREN 17RA**

- Astelehenetik ostegunera. Astean 10 ordu. Txandaka ibiltzeko aukera maila guztietan
- Hiru ordutegi aukeran: 9:00-11:30 | 15:00-17:30 | 18:30-21:00.
- On-line (BOGA).
- 16 urtetik gorakoentzat.

**MATRIKULA ZABALIK IRAILAREN 23RA ARTE**



Lasarte-Oriako UDAL EUSKALTEGIA (Bekokale bidea, 1) Tel: 943 36 16 21 - euskaltegia@lasarte-oria.eus BULEGO ORDUTEGIA: 08:30-19:00

Emaiozu buelta bat zure munduari euskararekin 2020-21



**ONDO iBili!**

**IBILBIDEAK**

**AGENTZIAK**

**BALDINTZAK**

- Aurrez aurreko ikastaroak, hainbat iraupen eta intentsitatetakoak.
- On-line ikastaroak, autoikaskuntza...

**Udaleko euskaltegia Munteri-AEK euskaltegia**

- Lasarte-Orian errolatua egotea, ikastaroa hasi baino egun bat lehenagotik ikastaroa amaitu bitartean.
- 16 urte beteak izatea ikastaroa amaitzen den egunean.
- Ikastaro hauetakoren bat egina izatea:
  - 1- Euskaltegiko ikasturtean zeharreko ikastaroa, gutxienez 80 ordukoa.
  - 2- Barnetegia, gutxienez hilabete segidan baldin bada.
  - 3- Udako ikastaroak (ikasturtean zehar aurreko ikastaro-mota horietako bat egin duten ikasleen kasuan bakarrik)
- Gutxienez % 85eko asistentzia eta gutxieneko aprobetxamendua gainditua.

**BEKA %85<sub>a</sub>**  
matrikularen arte

*Dagokion ikastaroa bukatu eta hurrengo 15 egunen barruan aurkeztu beharko du interesatuak eskaera.*